



Ikaspilotako jaialdia eskualdeko lau herritan

PARTAIDEAK ▶ Villabonan, Ibarren, Anoetan eta Tolosan egingo dituzte euskal jolasak

HELBURUAK ▶ Ludikotasuna, harremanak eta emozioak uztartu nahi ditu proiektuak ▶ 3



Jolas ezberdinak egingo dituzte gaztetxoek euren arteko harremanak bultzatu eta emozioak uztartzeko helburuarekin. HITZA

AMEZKETA ▶

Ugarte auzoko jaiak amaituta, «arrakasta eta giro alaia» izan dira protagonista nagusiak

Laja eta Landakandaren emanaldia, zaldi erakustaldia eta Ingurutxoa, «jaietan arrakastatsuen» ▶ 5



Ingurutxoa dantzatzen. N. L.

ZIZURKIL ▶

Modes Iraola laugarren, Munduko Txapelketan

Zaldiek denbora galduarazi zioten txakurrari ▶ 4

IBARRA ▶



I. TERRADILLOS

Fernandez hirugarren, belako estropadan

Iker Martinezekin batera aritu da Ingalaterran ▶ 6

LEITZA ▶

Aurrerak denboraldiko lehen porrota jaso du

2-3 galdu zuen San Cristobalen aurka ▶ 7

KIROLAK ▶

XIX. Herri Krosa, bihar, San Esteban auzotik abiatuta

11:00etan aterako dira korrikalariak, eta 10 kilometroko luzera duen ibilbide berritua burutu beharko dute



Pasa den urteko Herri Kroseko une bat. LEIRE MONTES

ENERITZ MAIZ

Bihar, 11:00etan hasiko da, San Esteban Auzokide Kultur Elkarrekin eta Shanti Kirolak dendak antolatuta, Tolosako XIX. Herri Krosa.

Aurtengo lasterketak, ibilbidean aldaketa batzuk izango baditu ere, 10 kilometro egin beharko ditu lasterkari bakoitzak. Hauek izena emateko bi aukera izango dituzte: egunean bertan irteera lekuan, hau da, San Esteban auzoan, 10:30ak bitarte egin ahaliko dute 5 euro ordainduta, edota, aurretik, Shanti Kirolak dendara joanda, eta, kasu horretan, 4 euro ordaindu beharko dituzte parte hartu nahi dutenek.

Sariei dagokienez, lehen hiru sailkatuentzat izango dira diru sariak, bai emakume bai eta gizonetan ere. Lehenengo sailkatuak 150 euro irabaziko ditu; bigarrenak 90 euro, eta hirugarrenak 60. Sari gehiago ere izango dira zozketa baten bidez, kategoria guztiak lehendabizikoarentzat. Hauek gain, lehenengo iristen diren 350 korrikalariak, kamiseta bana eskuratuko dute.

Ohiko bilakatu den proba hau «oso baliagarria» izan daiteke, antolatzaileen arabera. Behobia-Donostia proba presatzen ari diren korrikalariarentzat, euren buruak nola daudden ikusteko.

ZENBAIT DATU ▶

HERRI-KROSA

Puntuz puntu. San Esteban; Gernikako Arbola; San Frantzisko; Araba etorbidea; San Esteban; Gernikako Arbola; San Frantzisko; Araba etorbidea; SAM zubia; Papera kalea; Lurrmendiko igoera; Iruña etorbidea; Amaratz auzoa; San Blas; Izaskun auzoa; Bizkaia kalea; Kondeko aldapa; Santa Klara; Nafarroako zubia; Kale Nagusia; Gorriti plaza; Barrena kalea; Pablo Gorosabel; San Frantzisko; Pedro Tolosa; Berazubi; Lurrmendiko igoera; Suhiltzaileak; Usabal kiroldegia; Lurrmendiko ibiltokia (ibaia ondotik); SAM zubia; Araba etorbidea; San Esteban.

Luzera. 10 kilometro.

Irteera. 11:00etan, San Esteban auzoan.

Izen-ematea. 10:30ak bitarte egunean bertan. Aurretik Shanti Kirolak-en.

SARIAK

Lehenengoak. 150 euro.

Bigarrenak. 90 euro.

Hirugarrenak. 60 euro.

Zozketa. Sari gehiago zozketa bidez.

Kamisetak. Lehen 350 korrikalariarentzat.

KULTURA ▶

Maite Francorekin kontu kontari

E. Maiz ▶ Atzo arratsaldean, Tolosako Errota haur liburutegian, beste behin ere, Tolosako haurren arreta bereganatzea lortu zuen Maite Franco ipuin kontalariak. Hala, istorio hunkigarriak entzun, ikusi eta bizitu ahal izan zituzten, hiru eta sei urte bitarteko haurrek nahiz hauen gurasoek. Ordu bete iraun zuen ipuin kontaketa motz geratu zitzaizen eta gehiagorako gogoz geratu ziren hara hurbildutakoak. i. g.



KULTURA ▶

'Esperientziak' proiektua asteburuetan ere ikusgai

E. MAIZ

Ikusirik 'Esperientziak' proiektuak izan duen arrakasta, Aranburu Jauregiko aretoetan, bertako ardura-dunek, erakusketa honek irauten duen bitartean igandean ere irekitzea erabaki dute, hau da, azaroaren 12a bitarte. Proiektu honek, Tolosaldean ia bizitza osoa igaro duten 70 urtez gorako 18 adinekoen testigantza biltzen ditu. Elkarrizketez gain, protagonisten garai haietako 9.000 argazki ere berreskuratu dituzte egitasmo honetarako.

Honez gain, Kultur Etxeko leihoetan, *Esperientziak* proiektuak egiten ari zirela digitalizatu ziren argazkien artekin aukeratutako batzuk daude ikusgai.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Garajea. Tolosan garaje ibxia salgai. Interesatuak deitu 943 65 25 81ra.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldirekin. 1995ekoa. 153.000 km, liburuarekin. 18ko gurpiletako haguak eta tetxua. Egoera oso onean.

14.000 euro. Interesatuak, deitu 943 65 41 43ra.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91ra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Ehiza garaian gaude. Usoetara eta birigarroetara ehiztari asko joaten dira. Gero oilagorretara. Ehiza honen alde al zaude?» Eman zure iritzia gure webgunean!

ZUZENKETA ▶

Euskadiko Gazteria Kontseiluak antolatutako *Gazteok eta etxebizitza* hitzaldia ez da gaur izango atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN azaldu bezala; datorren asteartean, hilak 17, 19:30ean, Kultur Etxean izango da.

GIZARTEA ▶
Nafarroa Oinezera joateko autobusak

Galtzaundi Euskara taldeak autobusak antolatu ditu igande honetan, Beran ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko. Izen-ematea Galtzaundiren egoitzan, Tolosako Nafarroa etorbidean egin beharko da. Autobus txartela 9 euro kostatuko da eta autobusak tren geltokitik aterako dira 09:00etan. Bueltatzeok berriz, 19:30ean aterako da autobusa Beratik.

GIZARTEA ▶
Kanpoan dauden presoengana joateko laguntzak

Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoengana bisitatzeko egiteak «gastu handiak» dakartzak. Hala, hauei aurre egiteko, Tolosako Udalarri, dirulaguntza eskarrek aurkezteko epea azaroren 10a artekoa da.

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozk disp.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurraremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KIROLA ▶

Eskualdeko 4 herritan antolatu dituzte Ikaspilotako jaialdiak

Jaialdi hauetan, ludikotasuna, harremanak eta emozioak uztartzen saiatzen dira Euskal Soin Jarduera Proiektukoak

ESTI EZEIZA

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere eskualdean dira, Euskal Soin jarduera proiektuak antolatutako jaialdiak. Euskal joko eta jolasak sustatu eta zabaltzeko asmoz hainbat ekitaldi burutuko dituzte gaztetxoek ikasturtean zehar.

Gipuzkoako herri gehienetan burutzen diren jaialdi hauetan, ikastola eta ikastetxe ugari hartzen dute parte. Saio hauen helburuak antolatzaileek esan bezala, ondorengoak dira: Ikasleen arteko harremanak sortu eta sendotzea; euskal joko eta jolasak indartzea; euskara eta jolasa komunikatzeko tresna hezitzaile bezala lantzea; euskal kulturaren transmisioa garatzea; pilotaleku eta plazak alaitzea; ikastolen arteko harremana sendotzea; eta batez ere, ongi pasatzea.



Joan den urtean, Tolosan egindako jaialdietako bat. E. EZEIZA

Alegiako Aralar institutuko ikasleak duela 4 urte hasi ziren egitasmo honetan parte hartzen, eta bertako zuzendariaren esanetan, «esperientzia oso baikorra izan da orain arte, eta laialdiak noiz diren galdeka hasi dira dagoeneko ikasleak».

Jaialdi hauek, Lehen Hezikuntzako 3. mailako ikasleentzat hasi eta unibertsitatekoentzat zuzenduta daude, mailaren arabera, ekintza eta proba ezberdinak gauzatzen direlarik: euskal jolasenak, bote luzekoak, euskal soin jarduerak eta herri kirolak.

HEZKUNTZA ▶

Ikasle Abertzaleak-ek herri eskolak antolatu ditu, bihar goizean

Hispanitate Eguneko ospakizunen aurrean, «intsumisio jarrera izatea» eskatu dute



Ikasle Abertzaleak-eko ordezkariak, atzo, prentsaurrekoan. E. EZEIZA

E. EZEIZA

Urteroko borrokari eta aldarrikapenei eutsiz, aurten ere, Ikasle Abertzaleak-ek, herri eskolak antolatu ditu datorren egunetarako, «izan ere, bihar, hilak 12, Hispanitate Eguna ospatzen da Hego Euskal Herrian». Hala, Ikasle Abertzaleak-ek, egun honetan intsumitu eta eskola alternatiboetara joateko dei egiten die Tolosaldeko gazteie.

Ikasle talde honen esanetan, «egun hau inposatua da, ez da guk hautatua. Espainiako gobernua, EAEko eta Nafarroako gobernuek hitzartua baikizik». «Honekin, jai egin arazi eta espainiarrak garela ospatzera behartzen gaituzte, normaltasunez klaseak ematen jarraitu beharrean», salatu zuten atzo, prentsaurrekoan Ikasle Abertzaleak-ekoek.

Honen aurrean aldarrikatu dute, «euskaldunok geure egutegia behar dugula, Euskal Herria eta euskal herritarrek ardatz dituen».

Honen harira, bihar, Tolosako Laskorain ikastolan herri eskolak gauzatu dituzte. Horregatik, Tolosaldeko ikasleei parte hartzeko dei egiten diete. Hasteko, goizean goiz, 09:30ean, Bilgune Feministako kide batek hitzaldia eskainiko du. Jarraian, *Kaiolatik At* DVDaren emanaldia izango da ikusgai. 11:00etatik 12:00etara berriz, ekitaldi sorpresa antolatu dute. Ondoren, herri kirolak egingo dituzte, eta amaitzeko, 13:30ean, manifestazioa izango da.

iragarki laburrak ▶
LANA

Gidariak. Libre dauden lanpostuak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritza, udalak, erakunde publikoak. 943 31 37 82.

Harreragileak-administrari laguntzaileak. Erakunde publikoetarako behar dira. 943 31 37 82.

EGUTEGIA ▶

10:00etatik 12:00etara izango dira saio guztiak.

VILLABONA

Urriak 30. DBHko 4. mailakoentzat, Euskal Soin Jardueren VII. jaialdia.

Ekainak 6. LHko 3. eta 4. mailakoentzat, Euskal Jolasen II. Jaialdia.

IBARRA

Azaroak 16. DBHko 3. mailakoentzat, Euskal Soin Jardueren V. jaialdia.

ANOETA

Maiatzak 16. DBHko 1. go mailakoentzat, Euskal Soin Jardueren VI. jaialdia.

TOLOSA

Azaroak 22. LHko 5. mailakoentzat, Euskal Pilotaren XII. Jaialdia.

Azaroak 24. LHko 5. mailakoentzat, Euskal Pilotaren XII. Jaialdia.

Urtarrilak 29. LHko 6. mailakoentzat, Euskal Pilotaren IV. Jaialdia.

Urtarrilak 31. LHko 6. mailakoentzat, Euskal Pilotaren IV. Jaialdia.

Martxoak 13. DBHko 2. mailakoentzat, Euskal Soin Jardueren IV. jaialdia.

Ekainak 8. LHko 3. eta 4. mailakoentzat, Euskal Jolasen II. Jaialdia.

ZIZURKIL ▶ EHIZA

Modes Iraola ehiztaria laugarren, Italiako Munduko Txapelketan

Ez zuen zorte handirik izan zizurkildarrak txakurraren atzetik zaldi batzuk aritu baitziren, denbora galduaraziz



Modes Iraola, artxiboko irudi batean, Heldo eta Mayo de Belkoain txakurrekin. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Modes Iraola ehiztari zizurkildarrak laugarren postua lortu du Mayo de Belkoain bere txakurrarekin Italiako Arenso herrian jokaturako Munduko Txapelketan. Etxerako bidaian hitz egin ahal izan du berarekin Tolosaldeko eta Leitzaldeko

HITZAK. «Gehiago lortzeko esperantzarekin joan naiz, baina ez da posible izan. Zorteak ez du lagundu». Hemeretzi partaide aritu ziren San Hubertoko modalitatean.

Zorteak ez du bere alde izan Munduko Txapelketa honetan. «Niri egokitu zitzaizkidan lursailen zaldiak zeuden. Bestela

ere aritu naiz ehizean zaldiak inguruan daudela, baina hauek, izututa edo izango ziren eta txakurraren atzetik hasi ziren korrika, beraien burua defendatu nahian», azaldu du Iraolak. Horrek denbora asko galduarazi zien. 20 minutu baitauzkate lehiakideek egokitu-tako lursailen aritzeo.

Zaldien ustekabea konpondu zenean, Mayo de Belkoain bere txakurrak zerbait usaitu zuen eta haren atzetik abiatu zen Iraola. «Faisairen bat usaitu zuela uste nuen, baina azkenean bi orkatz izan ziren topatu zituenak. Eta noski, horiek ezin dira tirokatu. Eta hor ere denbora galdu genuen». Azkenean, tirorik botatzeko aukerarik ez zuen izan Iraolak. Horrelako txapelketetan gertatzen diren ezusteak dira eta horixe egiten zaio erakargarri Modes Iraolari: «Ezuste horiek egiten dute ehiza hain polita».

Lehenengo gelditu zenak bakarrik bota zuen ehizaki bat, ehiza asko izan arren. «Beste guztiek ez genuen ehizakirik lortu», dio ehiztari zizurkildarrak. «Lur sailetan sare batzuk zeuden eta bestaldera ihesi egiten zuten faisaiak».

Laugarren postuak bete ez badu ere, bere entrenatzailea den Antxon Sanchez irundarra bigarrena izan da gizonezkoetan eta lehenengoa talde bezala, eta horregatik pozik dago Iraola: «Sanchezek ehizaki bat bota ahal izan du eta Yiñ de Belkoain txakurrarekin aritua. Mayo de Belkoainen semea. Bi txakurrak etxean hezitakoak dira eta potzasuna ematen dizu zuk hezitako txakur batek postu on bat egiten laguntzen duenean».

Bidai luzea gelditzen zaie oraindik. Atzo abiatu ziren Italiatik eta gaur iristea espero dute. Furgoneta bat alokatu zuten joan-etorria egiteko. «Joatekoa oso luzea egin zitzaigun eta orain ea lehen bait lehen iristen garen».

Txapela janzteko asmoarekin joan zen Iraola. Oso gertu aritu da azken urteotan. Orain bi urte bigarrena izan zen eta ia hirugarren amaitu zuen. Aurten, baina, egindako presaktaketa guztiei ezin izan dio nahi bezalako amaiera eman. Ehiza txapelketetan faktore ugari egin behar dute irabazi ahal izateko, eta ez zaio hori suertatu zizurkildarrari.

ANOETA ▶

Idorreriarri buruzko hitzaldia Alkartasunan

Kutzak antolatutako hitzaldia entzuteko aukera izango da, gaur, Anoetako Alkartasuna biltokian. *Idorreria, nola aurre hartu eta tratatu* da hitzaldiaren izenburua eta Begoña Tabernerok emango du. 18:30ean hasiko da eta nahi duen guztiari irekita dago. Bestalde, Alkartasunetik azaldu dutenez, Espainiako Gabonetako Loterian 22.174 zenbakia dute salgai biltokian bertan. 17:00etatik aurrera eros daiteke.

VILLABONA ▶

Pello Iraizoz hizlari, Aritzako ikastaroan

Villabonako Aritza Kultur Elkartek antolatu duen *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroaren hirugarren saioa egingo dute datorren astelehenean. Artisautzan, etnografian eta ondarean aditua den Pello Iraizozek emango du hitzaldia. *Herri bat, kultura bat: antropologia, ondarea, hilobi-estelak...* izenburupean. Hitzaldia gazteleraz izango da eta, ohi bezala, herriko Gurea aretoan eskainiko du.

ZIZURKIL ▶

Hernandorena Lehiaketan parte hartzeko aukera

Teodoro Hernandorena V. Ipuin Lehiaketara lanak bidaltzeko epea zabalik dago. Oinarriak jakiteko interesatuak udal bulegoetara zuzendu daitezke. Azaroaren 28a da azken eguna lanak entregatzeko.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Baraibar. 2.000 m2ko partzelan borda eraberritua salgai.

Belauntza. Pabiloia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Belauntza. Bifamiliarra: bi solairu eta 270 m2ko lursailarekin.

Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai. 3.500 m2ko lursailarekin.

Berastegi. Bi solairuko borda salgai, solairu bakoitza 100m2koa. 70.000m2ko lursailarekin.

Hormilla (Errioxa). Naxeratik 3 kilometrotara, abixituriko etxeetan azkena. Lorategia, terraza eta pisinarekin. 173.000 euro.

Legorreta. 30.000 m2ko landako lursaila salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.

Tolosa. Zabalarreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, terraza, bainugela, komuna, trasteleku eta garaje ixia.

Tolosa. San Frantzisko, 75m2ko atikoa salgai. Eraberritua.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldia, eta bainugelarekin. Berritua.

Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2

logela, 24m2ko egongela, bainugela eta sukaldia. Igogailua jabearen esku.

Tolosa. Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldia, egongela eta

bainugelarekin.

Tolosa. Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Esteban, kanpora begirako etxebizitza salgai. 100m2. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Aldaba, bi etxebizitzetan banaturiko baserria salgai. Berrituko.

Tolosa. Maituna zaharra. 15 garaje

berri, guztiak itxiak. 30 m2tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea.

Eraikitze bidean.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazugailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Ventosa (Errioxa). Hiru solairuko familia bakarreko etxebizitzak

urbanizazio pribatuan.

Etxebizitza alokairuan. Alokairuan dauden etxebizitzetan inguruko informazio gehiago jaso daiteke bulegoan bertan.

UGARTE ▶ JAIK



Laja eta Landakanda trikitilariak giro aparta jarri zuten Ugarteko frontoian. NEREA LIZARTZA

Arrakasta eta giro alaia izan dira auzoko protagonista nagusiak

Antolatzaileak «oso gustura» daude bertaratu den jende mordoarekin

NEREA URBIZU

Aurtengo Ugarte auzoko festak igandean bukatu ziren. Bertako bizilagunek «oso gustura» eta «oso ondo» joan direla ziurtatu zioten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. Haien hitzetan «balorazio oso ona» egiten dute.

Ostiral iluntzean eman zieten hasiera jaiak. Suziriak eta karpai jotzeak izan ziren jaiari hasiera eman zietenak. Dena dela, onena etortzekoa zen: izan ere, larunbatean umeen eguna izan zen: mezaren ondoren gaztetxoaren arteko pilota partidak izan ziren Ugarteko pilotalekuan. Puzgarriak bai goizean bai eta arratsaldean ere izan ziren. Kart-etan ere ume asko ibili ziren elkartearen aurrean dagoen plazatxoan.

Hala ere, puzgarriak eta kartak umeen pozerako baziren ere, onena ondoren etorri zen. Amezketatik etorritako bi zaldi Ugarten zehar paseotxoak egiteko prestatu zituzten, lehengo urtean izandako arrakasta ikusita. Aurretik ere «denek ibili nahi izan zuten gurdia barruan», zaldien indarraz mugitzen ibilita, alegia.

Ondoren txokolata prestatu zuten han ziren guztientzat. «15 litro txokolata prestatu ditugu aurten: litro horiek askorentzat dira, jende asko hurbildu zenaren seinale», zioten antolatzaileak.

«Pena bakarra» gogoratzen zuten bizilagunek, «zaldi karrera ez egin ahal izatearena». Ostiral gauean botatako eurirengatik belardian egin behar zen lasterketa bertan behera geratu zen, «dena oso irristakorra eta bustia zegoelako». Proba honetan 6 bat lagunek hartu behar zuten parte: Ramon Balerdi, Abel Beloki eta beraien beste 4 lagun.

Igandean Ugarteko Ingurutxo 9 bikotek dantzatu zuten. «Urtero dantzatzeko den dantza da, eta herriko guztiek noizbait egin duten zerbait da. Horregatik, jendeak ikusi nahi izaten du eta asko plazara etortzen dira hau ikustera». Aurtengoan detailtxo berezi bat izan da, ordea: «txikiak 4 urte zituen eta bere anaiarekin atera zen dantzatzera: Eider Zubeldia eta Oier. Haiekin batera beste bi bikote txiki aritu ziren: ikusleek ez zuten beste ezer begiratu». Beraz, sagardo dastakerekin batera Ingurutxoaren



Txikiak ere Ingurutxoan. N. L.

bi emanaldiak izan ziren arrakastatsuenak igandean. Sagardo dastaketan «lekuz eskas ibili ginen, jende asko etorri baitzen, espero genuena baino gehiago».

Laja eta Landakandaren emanaldia ez zen ezer ezean geratu: «jendeak dantza pila egin zuen trikitilari hauekin. Jo eta ke aritu ziren. Horrek gustua ematen du: gu oso gustura gaude. Denbora eman dugu jai hauek prestatzen, eta gero jendea gustura dabilela ikusten baduzu, gu are eta poz handiago sentitzen dugu».

Poz haren testigu astelehenan antolatzaileek egindako bazkaria izan zen. Bertan, paella ederra dastatzeaz gain, festei buruz mintzatu ziren.

ALEGIA ▶

‘La novia cadaver’, gaur Gaztetxean

Gaur Alegiko gaztetxean filma bat izango da. Kasu honetan *La novia cadaver* izango da. Zuzendaria Tim Burton (AEB) da, eta ohi duen bezala, marrazki bizi-dunekin egindako pelikula dibertigarria da. 21:30ean hasiko da, esan bezala, Alegiako gaztetxean.

ALTZO ▶

Dieta mota gehientsuenak gaur hizpide

Gaur, 17:00etan Altzoko Udaletxean, *Digestio zoriotsuak edo digestio astunak* izeneko hitzaldia Aulas Kutxaren laguntzaz antolatu dute, ondorengo helburuak eta egitarauarekin: janariak digeritzeko prozesuan parte hartzen duten egiturak ezagutzera ematea, bizi-kalitatea hobetzeko aholkuak jaso, janariak nola joaten diren, nola aurrea hartu eta antzeman urdaileko ultzerei eta gastritisei, dieta garbia, babes-dieta eta abar.

ALEGIA ▶

Intxurreren partiden emaitzak

Nesken arteko areto futbol jokalariek bigarren garai-pena lortu dute, 2-0 emaitzarekin, Orixeren aurka. Kadeteek lau gol sartu zituzten, Tolosakoek bitartean. Lurraldekakoek ezin izan zuten irabazi, ezta jubenilek ere. Lurraldekakoek eta jubenilek Lazkaoren kontra jokatu dute, eta kadeteek, aldiz Tolosakoek kontra.

PILOTA ▶

Zazpi-Iturrik sei garaipen lortu ditu asteburuan Probintzian

Maila helduenekoetan irabazi dituzte partidak, eta DV torneoan ere ondo aritu dira

N. URBIZU

Asteburuko partida batzuk jokatu dituzte Zazpi-Iturrikoek. Probintzian sei partida irabazi dituzte. Helduenek lortu dituzte emaitza onenak.

Hauek izan dira emaitzak: Banaka kadeteak Aitzol Galarraga 10, Anaitasuna 18. Garmendia gazteak 14, Urnietakoak 22. Banaka nagusiak, Alzakoak 22 Belokik 17. Olaetxea-Azelus bikoteak 22-Hernanik 5. Binaka gazteak Iraola-Otegi 22, Herrigintzakoak 13. Binaka gazteak Ropon-Leunda 22 Antigu 9. Binaka nagusiak 3^a maila Aurrera-saiak 12-Zabala-Zubillaga 22. Nagusiak 2. maila Zelaia-Ugartemendia 22-añorga 13. Nagusiak 1. maila Elurbe-Garmendia 22, Añorga 18.

Aurrera-Saiak partida bakar bat izango du jolasteko asteburu honetan: Murumendi-koen kontra jokatu dute jubenilek, Beotibarren 20:30ean gaur.

Burlatako torneoan Iraola-Azelus bikoteak irabazi egin zuten. 22 eta 3 Iruñeakoei irabaziz.

DV Txapelketan ere

DV torneoan Zazpi-Iturriko Legarreta Iturrioz aurrelariarekin 22-11 irabazi zieten Azpitarte-Eizagirrerri. Bestalde, Aurrera-Saiak Koldo Galarragak Mallabian jokatu du DV torneoa 21:30ean, eta larunbatean, 22:30ean Alegian Renobalesek-Marinelarena ariko dira. Baez II-Garmendia ere ariko dira, bigarren partidari.

OKINDEGI
GOZOTEGI

ERROTATXO

Euskal herria, 26 • Ibarra
Tel.: 943 67 40 53

ELDUAIN ▶

Yogan izena emateko azken eguna gaurkoa

Gaur amaituko da yoga ikastaroan izena emateko aukera. Interesatuak, honako telefono zenbaki honetara deitu beharko dute: 943 68 31 21. Gogoratu, urriaren 25ean hasiko dela yoga ikastaroa Kultur Etxean eta eskolak asteazkenetan izango direla 15:30etik 16:45era.

IBARRA ▶

Artzaintzaren bizitza argazkitan Kultur Etxean

Pasa den astean jarri zen abian Iñaki Vergara argazkilaria Artzaintzaren Bizitza izenpeko argazki erakusketan. Vergararen argazkiak hilaren 16ra arte egongo dira ikusgai Kultur Etxean, euskarazko nahiz erderazko testuez lagunduta. Txuri beltzeko 35 argazkiren bitartez, gure arteki desagartzen ari diren artzainak omendu nahi ditu Vergarak.

HEZKUNTZA ▶

Ingeleseko mintza praktika egiteko aukera

Ingeleseko mintza praktika egiten interesaturik dagoenak badu horretarako aukera. Izan ere, hamabostean behin eta asteazkenetan ingelesez mintzatu eta hizketa hobetzeko aukera sortu baita. Interesatuak, dei dezatela honako telefono zenbakiak: 943 69 31 73 edo 943 69 41 10.

TOLOSA ▶

Haurrentzako zine emanaldia Leidorren

Bihar, haurrentzako film emanaldia izango da Leidorren, 17:00etan. Eskainiko den filma *Garfield 2* izango da eta 3 euro ordaindu beharko dute bertaratutakoek.

IBARRA ▶ BELA

Xabi Fernandezek hirugarren postua lortu du Ingalaterran

Iker Martinezekin batera aritu da Weymouthen buruturiko belako estropadan; 2006ko denboraldia amaitu arren, denboraldiaurrean buru-belarri ari dira lanean

MADDI SOROA

Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinez de Lizarduy hondarribitarrak hirugarren postua lortu zuten Grand Krust-Movistar bela-ontziarekin pasa den larunbatean Weymouthen (Ingalaterra) buruturiko estropadan.

Hasierako jardunaldian sekulatu saioa egin zuten gazteek, lehiaturiko hiru txandetan garaipena lortu baitzuten. Garaipen orokorra eskuartearen zutela zirudienean, ordea, arazoak izan zituzten itsasoarekin eta gauzak zaildu egin zitzaizkien.

Lehenengo txandan eginiko irteera txarrak eta bigarregon egin dako iraulketa baten ondorioz, 17. eta 14. postua lortu zituzten. Azken txandan lorturiko hirugarren postuak, ordea, sailkapen orokorrean hirugarren postua lortzea ahalbidetu zien gazteei.

Estropadaren garaipena, egun munduko txapelduak



Xabi Fernandez ibartarra, artxiboko irudi batean. I. TERRADILLOS

diren Draper-ek eta Hisocksek eskuratu zuten. Aipatu, bikote irabazlea Fernandezekin eta Martinezekin dabilela entrenamendu saioak egiten. Gogoratu, belan oso ohikoa dela bi bikote elkarrekin aritzea entre-

namendu saioak egiten, modu horretan konparazioak egin baititzaizkete.

Fernandezek adierazi duenaren arabera, ez omen zuten espero estropadan hain maila handia egongo zenik. Antza

denez, bikote askok aukeratu omen du Weymouthko estropada datorren denboraldiari ekiteko.

Denboraldi berriari begira

Gogoratu, 2006ko denboraldia irailan amaitu zela, baina dagoeneko hasiak direla Fernandez eta Martinez 2007ko denboraldiaurreko lanean. Horretarako izan dira Weymouthen, denboraldiari ekiteko, hain zuzen ere.

Urtero, Palamosko Christmas Race aukeratzeko kirolari gehienek denboraldi berriari hasiera emateko. Fernandez eta Martinezek, ordea, munduari bira eman ziotenean indarra galdu zuten aurtengoan aurrea hartu diote denboraldiari eta nahiago izan dute denborarekin entrenatzen hastea.

Gogoratu, Weymouth izango dela 2012ean Londresen ospatuko den Joko Olimpikoen belaren egoitza.

IBARRA ▶ POLITIKA



Ongietorri beroa jaso zuten epaituek senitarte eta lagun artean

M. Soroa ▶ Herenegun iluntzeko bederatzia aldera iritsi ziren Mikel eta Josu Ozaita, Goar Jimenez, Haritz Sudupe, Ibon Aranalde, Eñaut Garmendia eta Jon Otegi Ibartarra, etxera. *Ongi etorri Peña* zioen kartelaren aurrean, dantza eskaini zieten ongietorriarekin hasteko herriko dantzari batzuk. Ondoren, Sendi Ekintzan afari le-

gea egiteko aukera izan zuten epaituak izandakoek senitarte eta lagunekin batera. Tripa beteta eta sagardoaren konpainian gustura egon ziren guztiak, pozik egoteko arrazoirik ez baitzen falta izan. Madrilen izandako epaiketa, autoz eginiko bidaia luzea, urduritasuna edota ezinegona ahaztuak geratu ziren azkenean. HITZA



LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak denboraldiko lehenengo partida galdu du

Aurreneko zatian «oso ongi» aritu baziren ere, bigarrena erabakiorra izan zen



Aurrera KE futbol taldea denboraldi hasieran. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Igandean Leitza jokatu zen partidaren 2 eta 3 galdu zuen ustekabean Aurrerak. San Cristobal Berriozargo taldeak pozik alde egin zuen etxera, lehenengo zatiko markagailu kaxkarrak (2-0) bigarren zatian bere alde egin zuenean. Izan ere, lehenengo zatian «oso ongi» aritu ziren Aurrera taldekoak, eta Antton Gomezek eta Jabi Urteaga jokalariek gol bana sartu zuten.

Bigarren zatian, ordea, gauzak erabat aldatu ziren; berriozargarrek gol bat sartu eta urduri jarri ziren leitzarrak. Ho-

nela, San Cristobal taldekoek izan zituzten aukera guztiak baliatu zituzten bost minututan hiru gol markatuz.

Aurtengo ligan Aurrera KE taldeak 5 partida jokatu ditu eta hau izan da galdu duen lehendabizikoa. Sailekapenean 12 punturekin lehenengo den arren, Berriozarko CD San Cristobal taldearekin berdinduta dago, azken hauek partida bat gutxiago jokatu dutelarik. Hurrengo partida bihar izanen dute, Iruñean, eta CD Universidad Publica de Navarra taldearen kontra ariko dira leitzarrak, haien futbol zelaian.

LEITZA ▶

Doneztebeko errepidea konpontzeko obrak martxan

Martxoan euri jasek kaltetu zituzten errepide bazterrek konponduko dituzte

N. GARZIA

Nafarroako Gobernuko Herri-Lan, Garraio, eta Komunikazio sailak Leitza eta Doneztebe arteko bidean (NA-170) obrak egingo dituela jakinarazi du.

Obrak 23,559 eta 24,904 kilometro eta 25,258 eta 25,650 kilometro artean egingo dituzte eta martxoan euriak eragin zituzten zenbait kalte konpontzea dute helburu. Horretarako hormigoizko bazterrek moldatuko dituzte errepideko bi norabideetan. Obrak Obras y Reparacion de Terrenos SLk egingen ditu, 60.000 euroko kostua izanen dute, eta hilabete batean amaituko dituzte.

LEITZA ▶ KULTURA

Saltsa ikastaroan hasteko deialdia, kiroldegian, dagoeneko martxan

Ikastaroa azaroan hasiko da, eta aurten, bi maila ezberdin eskainiko dituzte

N. GARZIA

Joan den urteko esperientzia errepikatzen asmatan, Iruñeko Miguel Angel eta Aitziber irakasleek berriro saltsa, merenge eta batxata ikastaroak emateko deialdia luzatu dute Leitzako kiroldegian.

Aurreko urtean 16 pertonez osaturiko taldea egin zuten eta aurten ere deialdiak erantzun ona izatea espero dute. Irakasleak bi multzo ezberdinetan an-

tolatuko dituzte, aurreko urtean ibili zirenak edo esperientzia apur bat dutenak, alde batetik, eta aurten hasiko direnak, bestetik. Bigarren urtean emateko aukera izanen dute. Klaseak larunbatetan emanen dituzte, 2 orduetako ezberdinetan: 10:30etik 12:00etara, eta 12:00etatik 13:30era. Oraindik zehaztu gabe daude maila bakoitzaren orduetegiak.



Leitzako kiroldegia, artxiboko irudi batean. J. ASTIBIA

Bi irakasleek hainbat herri-tan aritzen dira dantza ikastaroak ematen, Iruritan, Donezteben Etxarri-Aranatzen... eta aurreko urtean pare bat jaialdi egin zituzten Etxarrenen eta Elizondan (Lur diskotekan). Jaialdi hauen helburua, «festa

giroan herri guztietako ikasleak elkartzea zen eta bidenabarraren saltsa dantzatzu ongi pasatzea».

Izen-ematea polikiroldegian izanen da, eta prezioa, hileko 30 euro. Ikastaroa azaroan bertan hasiko da.

TOLOSA ▶

Interneteko ikastaroa egiteko epea zabalik

N. GARZIA

Interneten oinarritzko mailaren ikastaroetan izen emateko epea zabalik dago. Ikastaroa hilaren 18tik 31ra bitartean egingen da, eta 2 orduetako ezberdin eskainiko dituzte: 09:00etatik 11:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Izen emateko KZgunetik pasa edo 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu beharko da.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Altzo. Udaletxean, 17:00etan *Digestio zoriontsuak edo digestio astunak* hitzaldia izanen da, Aulas Kutxa eta Udalak antolatuta. Bertan, dieta gehienei buruz hitz eginen dute, eta baita bizi kalitatea hobetzeko eman beharreko pausuen berri emanen du.

Amezket. Euskara Elkartek eta Gazte Taldeak igande honetan Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Horretarako lehenbailehen izena eman behar da ohiko tabernetan edo Zumadi eskolan.

Anoeta. *Idorreria, nola aurre hartu eta tratatu* hitzaldia entzuteko aukera izango da Anoetako Alkartasuna biltokian. Begoña Tabernerok emango du. 18:30ean.

Tolosa. Bihar, Tolosaldeko inguruetatik mendi-bizikiletako 45 km-ko iraupen luzeko maratonia ospatuko da. Irteera 09:30ean Berazubi Auzoan eta bertan izen-ematea badago.

Villabona. Gaztebetxean, zine-klub saioa, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. *Espertiak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
 22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Laskorain ikastolako ikasleek txukun burutu zuten lana. IÑIGO TERRADILLOS



Mari Karmen Iradi bilketaren une batean. IÑIGO TERRADILLOS

Leun-leunak, gozo-gozoak

TOLOSA ▶ Atzo bildu zituzten San Blas auzoko Aritzeta baserriko lursailetan maiatzean ereindako babarrun aleak ikasle, politikari eta hainbat sukaldarik



San Blas auzoko Aritzeta baserriko lursailetan bildu zituzten lehen babarrunak. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Aleak beteta egotea, leun-leuna izatea, disdiratsua izatea, bere begi txurtxuriekien». Ezaugarri hauek beteta, urteko babarrun uzta gozo-gozoa izango da. Halaxe azaldu zuen, bederen, Mari Karmen Iradi Tolosako Babarrun Kofradiaren lehendakaria. Izan ere, bost hilabeteren ostean, iragan maiatzean ereindako babarrun aleak biltzeko garaia heldu zitzairen atzokoan San Blas auzoko Aritzeta baserrian. Eta lana txukun burutu zuten Tolosako hainbat ikasle, politikari eta sukaldarik.

Aurtengo uzta «ona» izan dela azaldu zuen Iradik, izan ere, «azken egunetan eginiko euriak eta biltzerakoan eginiko eguraldi onak asko lagundu dute». Hala ere, «ekainean jaio behar zuen babarrunak baina lehortea dela eta, uzta atzeratu egin da eta alea behar bezala osatzeko denbora gehiegi ez da izan». Baloratzeko dastatzea izango da onena...

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...